



Usurbilgo Udala

2024/04/25

2024KO APIRILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Josune Urkola Larrarte
Ivan Iriondo Axpe
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Usurbilen, 2024ko apirilaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

1.1.- 2024KO MARTXOAREN 21EKO AKTA.

Batzarkideek 2024ko martxoaren 21eko akta aho batez onartu dute.

1.2.- 2024KO APIRILAREN 11KO AKTA.



Usurbilgo Udala

2024/04/25

Batzarkideek 2024ko apirilaren 11ko akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2024KO MARTXOAREN 18TIK APIRILAREN 19RA (2024/316-2024/453).

Alkatetzak 2024ko martxoaren 18tik apirilaren 19ra bitartean (2024/316-2024/453) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2024/348 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: JARDUNEKO ALKATEAREN IZENDAPENA.

Batzarkideei 2024/348 dekretuaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

4.- KONTU EMATEA: 2023KO LIKIDAZIOA (2023EKLI0002).

Kontu-hartzaileak 2023ko Aurrekontuaren likidazioaren berri eman du eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

5.- KONTU EMATEA: KALD001, KALD002 ETA KALD003 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEAK.

Kontu-hartzaileak KALD001, KALD002 eta KALD003 kreditu aldaketen berri eman du eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

6.- KONTU EMATEA: 2024KO LEHEN HIRUHILEKO ORDAINKETA BATEZBESTEKO EPEA (OBBE).

Kontu-hartzaileak 2024ko lehen hiruhileko ordainketa batezbesteko epearen (OBBE) berri eman du eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

7.- KONTU EMATEA: 2024KO LEHEN HIRUHILEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOA.

Kontu-hartzaileak 2024ko lehen hiruhileko aurrekontuaren exekuzioaren berri eman du eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

8.- 2024RAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA ONARTZEA (2024EKOF0001).



Usurbilgo Udala

2024/04/25

Batzarkideek Antolaketa batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Batzordera ekarri dira 8.ordenantza fiskalaren aldaketa puntuala, B1 kiroldegiko ikastaroen, C. haurreskolako tasaren eta I. Udajolas udaleku irekien prezioaren moldaketa proposatuz. Era berean 11. ordenantza fiskalaren zenbait aldaketa ere proposatu da.

2024rako Ordenantza Fiskalen aldaketen xehetasunak eman dira eta batzordekideen artean aztertu dira.

Antolaketa batzordean bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Iratxe Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Mari Lizaso eta Petra Romero.

Abstentzioa: Josune Urkola.

2024ko apirilaren 17ko Antolaketa batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak gehiengoz erabaki du 2024ko Ordenantza fiskalen aldaketa hasieraz onartzea eta 30 egunez jendaurrean jartzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

9.- KONTRATUEN ERRESERBA EZARTZEA (2024LIEO0001).

Batzarkideek Antolaketa batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa ikusita, komenigarritzat jotzen da gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei erreserbatutako gutxieneko ehunekoak finkatzea.

Gaia 2024ko apirilaren 17an egindako Antolaketa Batzordean eztabaidatu eta bozkatu da, honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

2024/04/25

Aldeko botoak: Iratxe Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Mari Lizaso, Josune Urkola eta Petra Romero.

Beraz, Antolaketa batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen laugarren xedapen gehigarrian aipatutako gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratzeko enpresei honako erreserba egitea: erreserba egin aurreko ekitaldian lizitazioz esleituriko SPKL-ko VI. Eranskineko kontratuen kopuruaren %10. Esleituriko kontratuaren urtez urteko kopuruak portzentai hori betetzeko balioko du.

BIGARRENA. Akordio hau betetzen dela bermatzeko, honako neurri hauek hartzea: udaleko Kontratazio Teknikariak urtero erreserbatutako kontratuei buruzko txostena egitea.

HIRUGARRENA. Erabaki hau argitaratzea, denek jakin dezaten, udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

10.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:00etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.